

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Hornitzaile txiki batzuekin izango dugu harremana, izan ere, hornitzaile handiekin lan eginez gero ez genuke izango negoziazioan beharrezko indarra. Hornitzaile txikiekin lankidetzan arituta, materialak prezio egokiagoan lortu ahal izango ditugu eta harremana estuagoa izango da. Elkarte hau sortuko dugu gure buiak eraikitzeko behar ditugun materialak eskuratzeko, eta tratua honako izango litzateke: gure irabazien %5 ematea, haien kostuak estaltzen laguntzeko.

Bestalde, ez dugu uste azpikontratazioa beharko dugunik, buiak sortzeko prozesua ez delako hain zaila eta guk geuk kudeatzeko modukoa delako.

